

*Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea*  
*Kazetaritza, 2021-2022 ikasturtea*

# **Erreportajea:**

## **Noranzko biko errimak**

Egilea: Iraia Vieira Gil  
Zuzendaria: Iñaki Lazkano Arrillaga

Leioa, 2022ko maiatzaren 17a, asteartea

“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisia ilustratze aldera”

"La autora o autor del trabajo fin de grado declara que son ciertos los datos que figuran en este trabajo original y propio, asumiendo en caso contrario, las responsabilidades que pudieran derivarse de las inexactitudes que consten en el mismo: plagio, usos indebidos de imágenes, etc. Todas las imágenes son copyright de sus correspondientes propietarios y/o licenciarios. Se incluyen en el presente trabajo bajo finalidad meramente divulgativa para ilustrar el marco teórico o análisis del trabajo".

## Aurkibidea

---

1. Erreportajea: Noranzko biko errimak .....	3
1.1. “Aberria ez zaigu inporta” .....	17
1.2. Molde zaharretan ezin sartu .....	20
1.3. Bertsolari Txapelketa Nagusiko irabazleak azken hamar edizioetan .....	23
2. Memoria: Noranzko biko errimak .....	25
2.1. Laburpena .....	25
2.2. Sarrera .....	25
2.3. Helburua.....	26
2.4. Metodologia .....	27
2.5. Erabilitako iturriak eta kontaktuak .....	29
2.6. Edukien antolakuntza.....	33
2.7. Erreportajearen eta memoriaren idazketa .....	34
2.8. Ondorioak .....	34

# 1. Erreportajea

## Noranzko biko errimak

---

*Tradizioarekiko jarrera aparta izan da beti Euskal Herrian; modernitatearekiko jarrera, aldiz, mesfidatia. Testuinguru honetan gauzatzen da bertsolaritza eta raparen arteko auzia.*

1973, Sedgwick Avenue, Bronx (New York). Cindy Campbell jamaikarrak 1520. zenbakian antolatu du jai. Edonor da ongietorria. Ohorezko gonbidatua ere badago: Clive Campbell, Cindyren neba, DJ Kool Herc bezala ezaguna. Musika jartzeko ordua heldu da eta DJ Kool Hercek rock, pop, disko, jazz eta blues musika nahasteari ekin dio, melodia instrumentalak luzatuz eta abestiak sartzeko soinu berriak erantsiz. Jakin gabe, hip-hop musika sortu du.

Selektah Kolektiboa taldeko Aritz Sound Systemek hip-hop musikaren mundua ondo baino hobeto ezagutzen du: “Musika ulertzeko modu jakin batetik sortu zen hip-hop musika; jamaikar sound systemen eraginez, *toaster* edo DJen adierazteko modutik, funk erritmoen indarretik”. Hip-hopa, baina, ez da inoiz izan estetika kontua soilik; hasieratik izan du tradizioaren zantzu nabaria. “Aurretik, ahozkotasunaren bidez zabaltzen ziren esklabu afroamerikarren bizipenak, erritualak eta erritmoak zeuden”.

Tradizioz, Euskal Herrian ere ahoz kontatua izan da historia. Mendez mende, gure garaian oraindik balizkoa den teknika erabili zuten arbasoek: bertsolaritza. Zenbait ikerlarik bere jatorria historiaurrean kokatu arren, ezagutzen den lehen bertso saioa 1801ean egin zen. Geroztik, ordea, ehun urte baino gehiago igaro behar izan ziren bertsolaritza profesionalizatutako artea bihurtu arte. 1935. urtean egin zen, hain zuzen, lehen Txapelketa Nagusia.

## Euskarazko raparen sustatzaileak

Egungo Euskal Herriko ekosistema artistikoan, bertsolaritza eta rapa bizikideak bihurtu dira. Desberdintasun txiki batek besterik ez ditu aldentzen. Hala azaldu du, behintzat, Aritz Sound Systemek: “Euskal rapa oso gaztea da. Jaio berri den, eta oraindik garatzen ari den, gizartearen ezaugarriak ditu”. Izan ere, Selektah Kolektiboa taldea izan zen Euskal Herrian hip-hopa egiten lehena. Are zehatzago, Euskal Herrian euskarazko hip-hopa egiten lehena.

Aritz Sound Systemekin batera, Daddy Jeffek, DZetak, Wankak eta Molte MC-k osatu zuten Selektah Kolektiboa. 2000. urtean sortua, urte hartan bertan argitaratu zuten lehen diskoa Esan Ozenki zigiluaren eskutik: *Selektah Kolektiboa*. Askok “aberasgarri eta iraultzailatzat” hartu bazuten ere, rapa “tradizio sakratuaren” aurka zihoala uste zutenak ugariak ziren. Aritz Sound Systemi gogora datozkio folk eta rocka ez egiteagatik sarritan oihukatu izan dizkieten hitzak: "Hau ez da gure estiloa".

Etsai nagusia, baina, etxean dago usu. “Rapzale askorentzat ez ginen odol garbikoak, maila baxuagokoak ginen, ingelesez, gaztelaniaz edo frantsesez egiten ez genuelako”. Kritikek ez zuten haiekin bukatu. Alderantziz: musika egiten jarraitzera bultzatu zituzten. “Euskarazko rapa begi onez ikusten zutenekin eduki genuen harreman gehien. Euskal Herri osoa zeharkatzeko aukera izan genuen, gure musika, mezuak eta maitasuna lau haizeetara zabalduz”, azaldu du Aritz Sound Systemek.

**“Euskal Herrian mugimendu urbanoa existitzen baldin bada, Aritz Sound Systemi eskertu behar zaio”**

*Ibon - Norte Apache*

Selektah Kolektiboak hurrengo urteetan sortutako euskarazko rap taldeei bidea ireki zien. Norte Apacheko Ibonek Aritz Sound Systemek egindako lana nabarmendu du: “Euskal Herrian mugimendu urbanoa existitzen baldin bada, Aritz Sound Systemi eskertu behar zaio”. Selektah Kolektiboa, aldiz, ez zen izan taldearen erreferente bakarra. MAK-ek eta Bad Sound Systemek ere eragina izan zuten Norte Apacheren musikan, Espainiako, Frantziako eta Amerikako hip-hop erritmoekin batera.

Norte Apache 2007. urtean sortu zen, Bilboko Ezkerraldean. Euskararen egoera zaila zen zonalde horretan euskarazko rap talde hau agertu izana ez zen kasualitatea izan. “Militantziagatik egin genuen, batez ere; euskara erritmo modernoekin plazaratzeko xedez”, azaldu du Ibonek. Taldeak hiru kide izan zituen guztira: Ibon, Rayco eta Aitor. Hasieratik, eta 2015. urtean oholta utzi arte, gazte erakundeetan, mugimendu sozialetan eta gaztetxeetan engaiaturik egon ziren, hurrenez hurren.

Rapa, gazteria eta politika elkarrekin doazen hiru kontzeptu direla ez du inork inoiz zalantzan jarri. Eta bertsolaritzari dagokionez, zer? Politikarekin zerikusia duten gaiak lantzea ohikoa al da ere? Egoitz Zelaia bertsolariak argi dauka erantzuna: “Ez dut uste

arau bat denik, baina derrigorrezkoa da. Edo hori ateratzen da”. Izan ere, euskara eta bertsolaritzaren arteko harreman estua argia da. Kontuak atera, beraz.

### **Hitzak neurtu beharra**

Gaiak baino, hitzen edukiak dira garrantzitsu. “Ez dute eboluzionatu. *Mainstream* bihurtu direnean, gai batzuk mantendu eta beste batzuk ahaztu dituzte”, azaldu du Zelaiak. Jon Martin bertsolaria bat dator berarekin: “Gauzak gaizki daudela eta drogak hartu behar ditugula esatea ulertu egiten dut, baina hobea izango litzateke multinazionalak eta politikariek boterearekin zer egiten duten salatzea. Zentzu horretan, bertsolaritza askoz ere koherenteagoa iruditzen zait”.

Gainera, egungo rapa asko aldatu dela adierazi du Martinek: “Apolitikoa, eskuindarra edo zentrokkoa da orain. Diruaren apologia dago, eta homofobo asko”. Rapean ez bezala, bertsolaritzan edozein gairen inguruan -basektomia, minbizia, feminismoa...- inprobisatzeko aukera dago. Bertsolariak, bestalde, eta rolaren arabera, “arrazista” edo “matxista” izateko askatasuna ere badu, baina kontuz ibili behar da: “Bertsotan ideologikoki astakeria bat den zerbait esaten baldin baduzu, egurra jasotzeko presta zaitez”, ohartarazi du Martinek.

Ordea, batzuetan ez da haientzako erraza hitzak kontrolpean izatea. Egoitz Zelaiak argi azaldu du: “Bertsoan ez duzu sekula esango zuk nahi duzuna nahi duzun bezala”. Horretarako askatasuna izango da rapean noizbait? Auskalo. Zelaia eta Martin bat datoz euskarazko rapa garatzeke dagoen diziplina den ideiarekin. “Mugimendu hau sortuz doa Euskal Herriko parketan. Eta parketan zer sortuko da? Inertziak gauzatzen baldin bada, homofoboa den zerbait sortuko da berriro”, baieztatu du Martinek.

### **“Bertsolaritza ez da Jaungoikoak ematen duen dohain bat”**

*Andoni Egaña - Euskal filologo, idazle eta bertsolaria*

Rapa ez da Euskal Herrian eskoletatik kanpo jorratu den lehen diziplina. Frankismoak iraun bitartean tabernak izan ziren bertso anitzen sorleku. Garai hartan, hain zuzen ere, ez zen egun bezainbeste musika jartzen tabernetan. Gazteek giroa sortzeko alternatibak bilatu behar zituzten, hala nola, bertsoak. “70 urte dituzten bertsolariek ez zuten bertso-eskolarik, dena belarriz ikasten zuten. Guk inoiz errimatuko ez genituzkeen gauzak errimatzen zituzten. -ina eta -aina, adibidez”, azaldu du Jon Martinek.

70eko hamarkadan gauzak aldatzen hasi ziren. 1974an, zehazki, lehen bertso eskola jaiotzen Arrasaten. Bertsolaritza akademikoki irakasteko lehen pausoa izanda ere, irakaskuntza teknikak ez dira zehaztuko Xabier Amuriza bertsolari eta idazleak *Hiztegi Errimatua* (1981) argitaratzeraino. Andoni Egaña euskal bertsolari eta idazleak Amurizari egotzi dio bertso eskolen arrakasta: “Amurizaren ideia batetik hasten dira: ona, erdipurdikoa ala txarra, bertsolari edozein izan liteke. Ez da Jaungoikoak ematen duen dohain bat”.

Saso batean ez bezala, egun teknikak eta errimaren erabilerak izugarritzko garrantzia dute bertsoan. “Prestakuntzarik gabe senez etorri diren ikasleek badute doinu aberastasun handia, baina teknikoki herren egiten dute”, dio Egoitz Zelaiak. Izan ere, eta Amurizak euskal tradizioan oinarritutako errimak biltzen dituen arren, badira bertsolaritza ikasiz besterik ez beregana daitezkeen errimen egiturak. “Errima familiaren sistema da gaur egun bertso eskoletan irakasten duguna”, zehaztu du Zelaiak.

### **Errimak duen zailtasuna**

Egaña bertsolaritza odolean daramala ez da sekretua. Donostiako plazatxo batean kafea hartzen jesarrita dagoela, barrutik ateratzen zaizkion bertsoak botatzeari ekin dio, errima familiaren sistemaren kontrako eredia nolakoa den erakusteko aitzakiaz: *Hemengo plaza honetan / Iraia eta biok gaude / inongo presarik gabe, / ni ari naiz hor benetan, / elkarrizketa honetan. / Ahal duguna egitea / elkarrizketa betetzeko helburu / biok horixe nahi dugu: / isilik ez egotea.*

“Guk ez dugu egiten dezimistek bezala a-b-b-d-c-d-d. Doinu gehienetan familia bereko hitzak errimatzen ditugu”, azaldu du Egaña. 2005. urteko Txapelketa Nagusian Egaña berak botatuko bertsoak adibide, errazagoa da familia bereko hitzak zeintzuk diren ulertzea: *Atsedena hartzea / ez degu kalteko / eta hori lortzen da / bera tarteko / aulkia gauza ona da / bila joateko / nahiz aspaldian hemen / gu gauzkan menpeko.* Kasu honetan, -ekoz amaitzen diren hitzak.

Rapean ez da errimatzeke araurik jarraitu behar. Ekaitz Astiz diziplina bietan aritua da, eta rapak errimatzeke askatasun handiagoa ematen duela ziurtatu du. “Rapean ez dago errima zehaztua, zortziko handia edo zortziko txikia; erritmoa dago, *flow*-a... Askoz libreagoa da”. Izan ere, bertsolaritza duela urte batzuk arauturik ez zegoen moduan, egun

rapa egiteko metodo zehatzik ez dago. “Rapa ikastera behartuta zaude, baina nola? Entzunez, beti entzunez. Rap eskolarik ez dago”, adierazi du Astizek.

**“Rapa ez da atzetik aurrera sortzen. Esan nahi dituzun kontuetan oinarrituz, ideiak eta errimak jaurtitzen dituzu. Momentuan zoaz istorioa osatzen. Bertsolaritzaren kontrako bidean”**

*Ekaitz Astiz - Bertsolaria eta rap abeslaria*

Errima ez da bertsotan edo rapean aritzeko neurtu beharreko kontu bakarra. Istorioa eraikitzeke modua ere garrantzitsua da. Zentzu horretan, Ekaitz Astizen esanetan, rapa “*seguidilla*” batekin alderatzea izango litzateke zuzenena. “Rapa ez da atzetik aurrera sortzen. Esan nahi dituzun kontuetan oinarrituz, ideiak eta errimak jaurtitzen dituzu. Momentuan zoaz istorioa osatzen. Bertsolaritzaren kontrako bidean”. Hau da: hasierako ideia sortu eta *flow*-ak bultzatuta sortzen duzu kontakizuna.

“Bertsotan, bukaera pentsatzen duzu gehienetan”, baieztatu du Egañak. Kontakizuna sortzea eta errimak erabiltzen jakitea bai, baina bertsolaritza askoz gehiago da. “Oso ariketa argumentatiboa izaten da. Hizkuntzarekin jolasak ezinbestekoak dira. Jolasak adina balio du argudioak”. Horregatik esaten da, hain zuzen, bertsoa atzetik aurrera eraikitzen dela, azken argudioa delako garrantzitsuena. “Nire argudioak topatuko ditut eta saiatuko naiz zureak desegiten, baina bukaerako argudioak pisurik ez badu...”.

Argudio ariketa zaildu egiten da rapeatzerako orduan. “Rapean musika oinarri batek ezartzen du erritmoa”, azaldu du Astizek. Horrek mugatu egiten du rap abeslaria. Pentsatzeko denbora laburragoa da, eta kantatu beharreko lerroak bertsotan baino luzeagoak. Abeslariari arin ibiltzea besterik ez zaio geratzen. “Bat-batekotasun horretan bertsoan daukazu pentsatzeko denbora gehiago. Rapean kontrakoa da. Errima baten faltan, esan nahi ez ditudan gauzak bota ditut: zure aita dela ez dakit zer, zure ama dela ez dakit zer...”.

### **Lankidetzarik bai?**

Ildo honi jarraiki, bertsolaritza eta raparen arteko beste desberdintasun bat azalarazten da. Hala azaldu du Astizek, behintzat: “Bertsoak zuzenagoak iruditzen zaizkit forman, nahiz eta elkarri esaten dizkieten gauzak gogorrak izan ere”. Egaña ados agertu da Astizen baieztapenarekin, eta “lankidetzaren eztabaida” delakoa aipatu du. Lankidetzaren eztabaida



honen arabera, bertsolariek elkarrekin eraikitzen dute bertsoa, nahiz eta elkarri kristorenak esan. Rapean ez dago halakorik; rap abeslariak elkarren kontra egiten dute gainetik geratzearren.

Jon Martinek sakonago azaldu nahi izan du aipatutako kontzeptua: “Konfrontazio-eztabaidan pertsonak elkarren aurka jarduten dute. Batek irabazten du besteak galtzeko. Irabaz dezake batek hobeto eginez, edo besteak okerrago eginez. Bertsolaritzan, beti ematen da lankidetzaz-eztabaida. Besteak hobeto egiten dezake, baina zuri ere mesede egiten dizu”. Aukera aprobetxatzen jakitean dago gakoa: “Bertsolariak ideia oso on bat bota dizu. Ideia horri erantzuten jakiteari esker, zuk puntu gehiago atera ditzakezu”.

Eztabaida kontzeptu horiek, Egañaren arabera euskaraz itzultzeko kontzeptu zailak direnak, lehiari ematen zaion definizioan dute eragina. “Jendeak lehia beti kirol parametroetan ulertzen du. Guk ez”, adierazi du Egañak. Eta hala uste du ere Martinek: “Bertsotan okerrago egin dezakezu Egaña baino, baina zu ere *luzitu* zara”. Rapak, aldiz, antz handiagoa du futbol partida batekin: besteak arreta galtzea eragin dezakezu, kontrola galtzea eragingo dion zerbait esan dezakezu, bere neska-lagunarekin sartu. Eta, agian, zuk ez duzu askoz hobeto egin, baina berak askoz okerrago egin du”.

**“Rapa bertsolaritzaren kontrakoa da. Horregatik, bertsotan, oso gutxi egiten da hika, ez diogulako elkarri begiratzen, hitza publikotik pasatzen delako beti”**

*Andoni Egaña - Euskal filologo, idazle eta bertsolaria*

Behin puntu honetara iritsita, betidanik eztabaidagai izan den kontua datorkigu burura: maltzurkeriaz jokatu gabe rapa egitea posiblea al da? Ekaitz Astizek ez du zalantzarik: “Bai. Adarra jo daiteke errespetua galdu gabe”. Eta euskarazko rapa aipatu du adibide bezala: “Euskara bera kaleko hizkerarekin loturik ez dagoenez, ez da hainbestetan entzuten horrelakorik. Niri euskarazko rapa egin dudanean gertatu izan zait. Ez daukagu bestea txikitzeke joera hori”.

Edo, behintzat, ez egungo Euskal Herrian. Izan ere, eta Zelaiak dioenez, garai bateko bertsolaritzan esaten zirenak rapean egun botatakoak bezain itsusiak ziren. “Bertsotan hori egon da, eta oraindik ere badago, kontua da bertsolariak mantsotu direla. Aurrekoak entzungo bazenitu, argi eta garbi ikusiko zenuke”. Desberdintasun handi batekin, baina. Hala azaldu du, behintzat, Egañak: “Rapetik bereizten gaituen ezaugarri bat zera da, elkarri egundokoak esaten dizkiogula baina ez elkarri begira”.

Bertso saioetan bertsolariak publikoari begira kantatzen du. Rap inprobisazio saioetan, ordea, abeslariak arerioari begiratzen dio. Bertsolariak, interpretatzaile moduan, publikoan bilatzen du erreakzioa. Rap abeslariak, bere aldetik, aurkariaren kontakizuna hari begira deseraikitzeari ekiten dio, oholtzatik kanpo gertatutako anekdotak ere haren kontra erabiliz. “Rapa bertsolaritzaren kontrakoa da. Horregatik, bertsotan, oso gutxi egiten da hika, ez diogulako elkarri begiratzen, hitza publikotik pasatzen delako beti”, adierazi du Egañak.

### **Maskara gardena jantzita**

Zentzu horretan, bai bertsolaritzak, bai rapak, antzerkiarekin zerikusia dute hein batean. Rolak interpretatzean, eta norberaren izaerarekin bat datorren pertsonaia eraikitzean, dago gakoa diziplina bietan. Bakoitzak, baina, bide desberdinak erabiltzen ditu horretarako. Rap abeslariak AKA -ezizena- erabiltzen duen bitartean, bertsolariak maskara gardenaz baliatzen dira. “Oso kontzeptu zaila da bertsoarena. Harkaitz Cano asko hurbildu zen. Berak esaten zuen bertsolariak maskara gardenak garela, maskara gardenarekin jokutzen dugula”, zehaztu du Andoni Egañak.

Eta zer esan nahi du maskara gardena eramateak? Horrela azaldu du Egañak: “Paper bat egiten dugunean ere, jendeak badaki nork egiten duen paper hori. Ez da interpretazio soila”. Eta guardia zibil rola interpretatzearen adibidea jarri du. “Bertsolari onena ez da, adibidez, guardia zibil papera hoberen egiten duena. Horretarako antzerkia dago. Bertsoa zerbait gehiago da”. Ez da nahikoa oholtzara igo eta poliziaren larruan sartzearekin. Egañak azaldu duenez, guardia zibilak bertsolariaren zati bat izango du beti eta, era berean, bertsolariak guardia zibilaren zati bat.

Jon Martinek beste eszenatoki bat planteatu du: “Zu dortoka bat zara eta ni barraskilo bat, eta lasterketa batean gaude”. Hasieran, gaiak jokorik emango ez duela dirudi, baina guztiz kontrakoa gertatzen da: “Neurri batean, gu izateari uzten diogu, maskara gardena jantzten dugu. Alegia, publikoak badaki gu gaudela atzean, baina badaki baita ere ni barraskiloa naizela. Horrek ikaragarri irekitzen digu sormen esparrua”. Ahobiko ezpata izan daiteke hori. Noiz da bertsolaria pertsona eta noiz pertsonaia? “Bertsozaleak oso ongi ulertzen du jolasa. Bertsozale ez denari kosta egiten zaio”, ondorioztatu du Egañak.

**“Normalean, gaitzizena beste batzuek jartzen dizute, eta, gehienetan, laidogarria den zerbaitetik sortzen da. Rapean aukera duzu zuk zeuk ezizena aukeratzeko, iraingarria den zerbaiti buelta emateko”**

*Endika Lahaine - 121 Krew*

Gauza bera gertatzen zaie rap abeslariari AKA erabiltzen dutenean. “Datu inportantea da AKA eta pertsonaren izenaren arteko urruntzea. Askok ez dute pertsona maite”, azaldu du Jon Martinek. Izan ere, jarrera harroa izan ohi da rap abeslariak erakargarri egiten dituenak. “Zenbatek egingo lukete txortan Chuttyrekin, adibidez, eta zenbatek Sergiorekin? Zenbatek esango lukete honekin larrua jo nuen eta zenbat egongo lirake prest pertsonarekin maitasun-harreman bat izateko?”.

Endika Lahaine 121 Krew taldeko abeslariak, bere aldetik, AKA izatearen alderdi positiboa azpimarratu du: “Normalean, gaitzizena beste batzuek jartzen dizute, eta, gehienetan, laidogarria den zerbaitetik sortzen da. Rapean aukera duzu zuk zeuk ezizena aukeratzeko, iraingarria den zerbaiti buelta emateko”. Lahaine grafitiari esker hasi zen hip-hop mugimenduan. “Grafitietan ez duzu zure izena jartzen. Batetik, ilegala da eta, bestetik, ‘Endika’ jartzea arraroa da”.

Endika izenarekin sinatzea ez da bereizten zaituen zerbait; edonor izan daiteke Endika. AKA izatea derrigorrezko bihurtzen da, bai eta AKArekin bat egiten duen jarrera ere. Hala azaldu du, behintzat, Jon Martinek: “AKAk pertsonaia eraikitze balio du”. Lahainek, baina, ez du haren burua pertsonaiatzat hartzen: “Nik Endika moduan idazten dut, nahiz eta nire izenarekin ez sinatu”.

### **Estereotipoen nondik norakoak**

Herri-irudikeriaren arabera, zerbait gehiago behar da rap abeslaria izateko. Baina, zer? Janzkera. Aurreiritziak eraginda izan bada ere, nork ez du noizbait entzun edota pentsatu “horrek *rapero* itxura du”? “Arropa askotan izan da rapean identifikatzeko modu bat”, azaldu du Endika Lahainek. Euskal Herrian sortutako rapean, aldiz, etikari garrantzi gutxi eman zaiola uste du: “Askok North Face, Salomon edo mendiko arropak eramaten dituzte, guk duela hogeitun urte egiten genuen bezala, baina euskal rapa ez da inoiz estereotipatua izan horretan”.

Are zehatzago, janzkera bereizketa modutzat hartu da beti. Endika Lahainek hala sentitzen zuen: “Arropak jantzi eta nire buruari esaten nion: ‘ni horrelakoa naiz’”. Horiek aurkitzea, ordea, zaila zen 2000. urtean 121 Krew taldean abesten hasi zenean. “Nik, hamazortzi urte nituenean, Frantzian erosten nituen galtza nasaiak, udan Parisko familia bisitatzerako joatean nintzenean”. Ia ezinezkoa zen Bilboko denda batean rap estetikarekin bat egiten zuen arropa aurkitzea. Gauzak aldatu direla uste du Lahainek: “Orain modan dagoela dirudi. Gazteek mota horretako arropa daramatzate halako estetikarekin identifikatu gabe”.

Iritzi berekoak dira Norte Apacheko kideak: “Euskadi Irratiko programa batera joan eta txanoa, kateak eta galtzak non zeuden galdetzen ziguten. Gaur pentsa: zein da rap abeslari baten itxura? Konparatzen badituzu Chill Mafia eta Endika Lahaine, ez dute zerikusirik. Hamar urte baino gehiago igaro dira, eta gauzak aldatu. Itxura moda bat da”. Hala eta guztiz ere, Norte Apacheko Aitorri rap abeslari itxura ez izateagatik hamaika aldiz entzundako galdera etorri zaio gogora: “Baina, zuek rap abeslariak zarete?”. Ibon bere taldekideak argi zuen erantzuna: “Zuk aurreiritziak badauzkazu, hori ez da nire arazoa”.

**“Beharbada, komeni zaizu janzkera eta zu zarena bateratzea. Maskara gardenena da hori ere, bestela gure mozarroa izango ginateke”**

*Andoni Egaña - Euskal filologo, idazle eta bertsolaria*

Bertsolaritzan, janzkerak maskara gardenaren kontzeptuarekin du zerikusia, Andoni Egañaren arabera. “Beharbada, komeni zaizu janzkera eta zu zarena bateratzea. Maskara gardenena da hori ere, bestela gure mozarroa izango ginateke”. Honek ez du esan nahi bertso saio guztietara estilo berdinarekin jantzita joan behar denik bertsolaria, norberaren emozio egoerari moldatzea guztiz zuzena da. “Nik orain daramadan boneta alderantziz jantz nezake eta ni izaten jarraituko nuke. Boneta aurrera edo boneta atzera, bietan ni naiz”.

Norbanakoaren itxura aldatu ez ezik, denborak bertsolarien itxura orokorra aldatu du. Andoni Egaña bertso saioetara joaten hasi zenean, bertsolari gehienak landa eremuak ziren, euskara peto-petoan egiten zutenak. Egun, alderantziz. Orain urbanoagoak direla dio: “Edozein rap abeslari izan daitekeen bezain urbanoak”. Egañak, baina, ez dio horri garrantzi handirik ematen, eta bertsolari izatea beste zerbait dela uste du: “Ez diot hainbeste garrantzia ematen euskararen jatorriari, nongoa den, noizkoa den. Gauza

dezente behar dira bertsolari ona izateko: berezko ahalmena behar da, ibilbidea, estilo propio bat, empatia, publikoarekiko errespetua...”.

Hala ere, Jon Martinen ustez, klasikoekiko ikusmirak bere horretan jarraitzen du, tradizioak diziplina honetan izan duen pisua handia izan baita beti. “Segun zeini galdetzen diozun, esango dizu gaur egungo bertsolariak ez direla onak. Oraindik iraganarekiko miresmena dagoelako”. Txirritak, Lazkao Txikik eta beste hainbestek eragin handia izaten segitzen badute ere, bertsolaritzak garai berrietara moldatzen ikasi du, bai eta publikoaren behar berriak asetzen ere.

### **Publikoak baldintzatutako artistak**

Bertsoak eta rap abeslarien lerroak baldintzatzen dituen zerbait badago, publikoa da. Kasu honetan, bata eta bestearen arteko antitesia argia da: bertsotan, bertsolariaren eta ikusleriaren arteko komunikazioa ez-hitzezkoa da; rap saioetan, rap abeslariak ezingo luke kontakizunarekin jarraitu publikoak iskanbila sortuko ez balu. Markel Yollerrek, bertsolari eta rap abeslari gasteiztarrak, bere azalean bizi izan ditu egoera biak: “Publikoak asko egiten du. Ez da berdina publikoa aulki batean eserita egotea, edo biribilean eskuak gora egotea. Oso *feedback* desberdinak ematen ditu”.

Raparen kasuan, zehazki, pandemia garaian garbi geratu da publikoak *freestyle* saioetan duen garrantzia. Horrela nabarmendu du, hain zuzen ere, Jon Martinek: “Kantatzeko modua pixka bat aldatu zen publikoak bataila gelditzen ez zuelako”. Hau da, etsaiarekin akabatzeke eraikitzen zituzten lerroak era desberdinean eraikitzen zituzten. Ondorioz, abeslariak kualitatiboki jauzi handia eman zuten. Ordea, bi urte igaro eta publikoak saioetara joateko baimena berreskuratu duenean, pandemia baino lehenagoko jarrerakin jarraitzen dute askok: “Publikoa itzuli da eta, honekin batera, populismoa”.

Egañak argi dauka zergatik eman den rapean, berriz ere, atzerapauso bat. “Denok hazi egiten gara komunikazioak funtzionatzen duenean eta denok txikitzen gara funtzionatzen ez duenean”. Zentzu honetan, bertsolaritzan berezko garrantzia bereganatzen du publikoak; protagonista bihurtzen da. “Bertsolaritza *performance* bat da, zuzeneko ariketa bat, non publikoak zuzeneko eragina duen”. Egañak bertsoak botatzen dituen bitartean, jendearen erreakzioari erreparatzen dio. “Gozamenik handiena da bertsoak kantatzen ari zarela, tarteko puntu batean, jendea barrez hasten denean. Eta zuk oraindik bertsoa ez duzu bukatu. Orduan badakizu zureak direla”.

**“Guk ez daukagu publikorik. Gure ikusleria ez da rapzalea edo rapa soilik entzuten duena; beste eszena batzuekin konpartitzen dugu”**

*Endika Lahaine - 121 Krew*

Bertso saioetara joaten den publikoaren estereotipoa, bertsolariarena bezala, antzinakoarengandik aski aldendu da. Lehen, adin tarte eta genero aldetik desberdintasunak baldin bazeuden, orain desberdintasun horiek atzean geratu dira. Emakumeak, gizonak edo genero ez-bitarrekoak izanda ere, umeak, helduak eta edadetuak joaten dira bertso saioetara. “Publiko oso heterogeneoa daukagu”, esan du harrotasunez Markel Yollerrek.

*Freestyle* saioetako publikoaren irudia askoz zehatzagoa da, Jon Martinek azaldu duenez: “Umetxoak dira, beti mantentzen da hamasei urtetan”. Fokua euskarazko *freestyle* saioetan jartzen badugu, aldiz, zailagoa da ikusleriaren profil xehea ematea. “Euskal raparen publikoaren estiloa nik uste dut oraindik ez dela finkotu, sortzen ari den zerbait delako”, adierazi du Yollerrek. Lahaine are deterministagoa da: “Guk ez daukagu publikorik. Gure ikusleria ez da rapzalea edo rapa soilik entzuten duena; beste eszena batzuekin partekatzen dugu”.

Bertsolaritzakoa barne. “Publikoa heterogeneagoa da bertsolaritzan rapean baino”, azaldu du Jon Martinek. Publiko biak, baina, izatekideak dira: “Bertsolaritzako publikoaren zati bat egon daiteke bai rapean, bai bertsolaritzan. Baina, bertsozale zaharrenek, seguraski, ez lukete raparekin asko gozatuko”. Norte Apachek, ordea, gogoan du, emandako kontzertu batean, gozaten ari zen 60 urte inguruko gizona: “Kontzertuan eman zuen gau osoa, dantzan. *Flipatu* egin genuen”.

### **Bertsolaritza ez da folklorea**

Hemen sumatzen da kontrakotasunik nabariena: tradizioan oinarritutako diziplina batek modernitatean oinarritutako alor batek baino publiko zabalagoa du kuantitatiboki. Nola neur daiteke, beraz, zer den modernoa eta zer ez? “Estatu Batuetatik datorren guztiak derrigor modernoa izan behar duela iruditzen zaigu, eta batzuetan ez gara konturatzen guk dauzkagun gauzeekin”, baieztatu du Jon Martinek. Eta bertsolaritza hartu du adibide: “Munduko beste inprobisatzaile batzuekin elkartu garenean, askok folkloreakin lotura handia dutela nabaritu dugu. Gu ez gara baserritarrez janzten bertsoak botatzeko, beste batzuk bai”.

Egoitz Zelaiak bertsolaritza folklorea ez dela baieztatu du. Horregatik da hain erraza tradizioz ahozotasunarekin harremana duten diziplinetatik bereiztea. “Folklorea niretzat hildako kultura da. Baina, era berean, kultura bizirik dagoen zerbait da. Nik bertsolaritza kulturatzat hartzen dut, bizirik dagoelako eta etengabean aldatzen ari delako”, adierazi du.

Euskarazko rapari dagokionez, “hasiberri” den diziplina dela uste du. “Raparen ohitura globalizaziotik datorrigu. Entzun dugu, gustatu zaigu eta gure egin dugu”. Hurbilen daukagun adibidea, baina, ez da ona: “Gaztelaniazko rapak 20-30 urte bitarteko atzerapena du mundu-mailakoarekiko”. Ipar Euskal Herrian ez; Frantziatik hartu dituzte ereduak: “Hemen badago Hegoaldean ezezaguna den kultura bat”. Eta Euskal Herrian, orokorrean hartuta, zer esanik ez: “Rapak anitzagoa izan beharko luke. Faltan botatzen ditut ahots desberdinak, *flow* desberdinak, egiteko era desberdinak”.

**“Ezkerraldeko rap abeslariak, ama hizkuntza gaztelania izanik, euskarazko rapa egiten dute eta horrek maila jaisten du, baina meritua askoz ere handiagoa da”**

*Jon Martin - Bertsolaria eta abeslaria*

Rap abeslariak horren bila dabilta oraindik. Kaleko hizkuntza bertsolariengandik eta gainerako abeslariengandik bereizteko erreminta izan liteke, baina, horretarako, euskarazko kale hizkuntza ezagutu beharra dago. “Euskal *freestyle*-an gertatzen dena da erdia bertsolariak garela. Orduan, bertsolariok antzeko maila daukagu *freestyle*-a egiten dugunean eta bertsoak abesten ditugunean”, azaldu du Jon Martinek. Hala ere, rap gordinenak Bizkaiko Ezkerraldean sortu direneko ustea du. “Ezkerraldeko rap abeslariak, ama hizkuntza gaztelera izanik, euskarazko rapa egiten dute eta horrek maila jaisten du, baina meritua askoz ere handiagoa da”.

Bertsolaritzak exijitzen duen hizkuntza garbiarekin apurtzearen alde dago Yoller, bai bertsotan, bai rapean. Ez ditu euskara akasgabe horrekin identifikatzen berak izandako bizipenak. “Niretzat ez da errealitate bat. Lagunarteko saioetan edo bazkarietan, bertsolariok rol horrekin apurtzen saiatzen gara”. Bai eta txapelketetan inoiz egingo ez lituzketen gauzak egitera ausartzen dira ere. “Saiatzen gara hizkuntza ez hain zuzena erabiltzen, erdarakadak sartzen, ingelesezko esamoldeak tartekatzen, errimatzen ez dituzten bertsoak botatzen”.

Yollerren uste berekoa da Endika Lahaine, eta artista ezagunenek ere horrelakoak egin dituztela gogorarazi du. “Bukowskik, Kerouacek... kaleko hizkuntza uztartzen zuten beraien obran, eta hori zen irakurleei gustatzen zitzaiena”. Lehen raperoek egiten zuten zerbait zen baita ere: “Estatu Batuetan ingelesez rapa egiten zutenek akatsak egiten zituzten haien errealitatea zelako”. Zergatik ez Euskal Herrian? “Euskararekin oso babesle jokatu dugulako; oraindik ere hala jarduten dugulako. Badirudi dena ondo egin behar dugula, edo ez egin”. Baina horrek ez dio inoiz mesederik egingo ez tradizioari, ez hasiberriei, eta ez euskarari ere. “Guztiz kontrakoa izan beharko luke; lortu beharko genukeena da euskaraz gero eta gehiago egitea”.

### **Etorkizunari begirada bat**

Euskara da diziplina biak hurbiltzen dituen ezaugarria. Errima? Bietan ezinbestekoa da, baina modu desberdinean eraikitzen da. Rola? Bietan bete behar da, baina erreminta ezberdinak erabiliz. Zergatik dago, beraz, biak konparatzeko nahia? Egañak argi eta garbi azaldu du: “Inori ez zaio bururatzen gaztelaniaz horrelako ikerketarik egitea, agian, gaztelania galtzearen beldurrik ez dagoelako”. Era berean, bertso saioetara doazen pertsona batzuek euskaraz ez dakitela ere gogoratu du Egañak. “Erdaldunei inbidia ematen dien gauza bakarretakoa da bertsoak ez ulertzea”.

Zentzu honetan, bertsolaritzak euskara bizirik mantentzeko paper garrantzitsua izango duela uste du. “Euskara gauza baliagarri, ludiko eta serio gisa hartuko da bertsoak egiten diren bitartean”. Bai eta bertsolaritzak orain arte izan duen babesa izaten jarraituko duela ere, gero eta gazte gehiago bertsotan hastera animatzen baitira. “Institutu bateko ikasgela batean, hogeit hamar ikasletik agian bostek dute euskal kulturaren aritzeko nahia. Baina, bost horien maila izugarri ona da”, adierazi du Egañak. Oro har, etorkizun oparoa antzematen dio bertsolaritzari: “Ni hasi nintzenean, kezka zen iraungo zuenik. 40 urte eta gero, ez daukat dudarik bertsolaritzak segiko duela, eta indarrez”.

Raparen etorkizuna ilunagoa da. Hala uste du, behintzat, Endika Lahainek: “Inoiz ez dugu lortuko gure eszena edukitzea reggaeak daukan moduan, adibidez”. Aritz Sound System iritzi berekoa da: “Selektah Kolektiboarekin hasi ginenean, handik urte gutxitara euskaraz musika beltza egingo zuten abeslari eta talde mordoa egongo zirela pentsatzen genuen. Ez da guk desio bezala gertatu”. Gauza bakarra geratzen zaie, beraz, euskal rap abeslariari, Lahainek adierazi duenez: “Orain beste musika estilo batzuekin elkarbizitzea besterik ez



zaigu geratzen, eta euskarazko sormenak bere horretan jarrai dezan lortzea".  
Bertsolaritzak orain arte egin duen bezala.

## 1.1. “Aberria ez zaigu inporta”

---

*Hogei urtez oholtza gainean daramatza Arrano Pertxak. 90eko hamarkadako hip-hop-a hurbildu du Euskal Herriko musika esparrura.*

Arrano Pertxak egiten duen musika nahastezina da. Lengu Iluna bidelagun duelarik, fikziozko mundutik abiatu eta haien bizipenetara hurbildu dituzte entzuleak Estatu Batuetako *Old School* hip-hop erritmoen bidez. Musika eszena alternatiboaren aitzindariak biak, euskara eta rapa harrotuz datoz.

**“Estatu Batuetako rapa, jatorrizko rapa lantzen dut. Sustrai horiek oso garrantzitsuak iruditzen zaizkit musika egiterako orduan”**

*Noiz hasi zinen musikan?*

Hamazazpi urterekin. Ez neukan lotura handia musikarekin. Solfeo ikasi ala ez. Baina, heldu zitzaidan rapa, eta nire buruari esan nion: nik hau egin nahi dut. Aurten hogei urte beteko dira lehen kontzertua eman nuenetik. Oso naturala izan zen oholtza gainean kantatzen aritzea. Gaztetasunaren indar horrekin mundua jan nahi duzu.

*Zein musika estilo lantzen duzu zehatz-mehatz?*

Estatu Batuetako rapa, jatorrizko rapa lantzen dut. Sustrai horiek oso garrantzitsuak iruditzen zaizkit musika egiterako orduan. Fusio-esperimenturik ez dut egiten. Oso zorrotza eta hertsia naiz ohiko erritmoekin. Hori da nire filosofia, edo Arrano Pertxarena, behintzat.

*Arrano Pertxa aipatu duzu, horrela ezagutzen baitzaituzte zure jarraitzaileek. Nola otu zitzazun ezizena?*

Istorioa dibertigarria da oso. Ezkontza batean nengoen, traje eta guzti, eta argazki bat bidali nien nire lagunei. Argazkiaren oinean “AKA Arrano Pertxa” idatzi nuen. Izena gustatu zitzaidan, Arrano Beltza sinbolo nazionalarekiko lotura nabaria delako. Ezizena izan zen, hain zuzen, euskarazko rapa egiten hasteko detonatzailea. Ordura arte gaztelaniazko rapa baino ez nuen egin. Arrano Pertxak rapa euskaraz egitera bultzatu ninduen.

*Zeintzuk izan ziren izena hartu ondoren emandako pausoak?*

Arrano Pertxa izena hartu baino lehen, Lengu Ilunak eta biok gaztelaniazko proiektu bat amaitu berri genuen. Orduan, esan nion: “Euskarazko rapari ekingo diogu orain”. Eta erabaki genuen rap *chuleta* izan behar zuela, horrelako figurarik, fikziozko eredurik, ez zegoelako Euskal Herrian. Gu ez gara horrelakoak, baina estilo hori ikaragarri gustatzen zaigu. Mucho Muchachoren estiloa, baina euskaraz.

**“Euskaraz idazten ditudan letrak ez dira inoiz modu honetan landu. Badakit, beraz, nire jargoi propioa eraikitzen ari naizela”**

*Nolakoa da Arrano Pertxaren fikziozko mundua?*

*Flipadatxo* bat. Arrano Pertxaren abestiek, gehienetan, ez dute gai konkreturik jorratzen. Lan estetikoak dira besterik ez; erritmoak atseginak egiten zaizkio belarriari. Hori bera da Arrano Pertxaren sekretua. Noizbait entzun duzu “hamaika modu desberdin onena naizela esateko” esaldia? Ba horrelakoa da Arrano Pertxa.

*Nola lortu zenuen Arrano Pertxa gainerako rap abeslariak baino hobea izatearen paperari sinesgarritasuna ematea? Zein erreminta erabili zenituen?*

*Yankee* eredu asko ikusita, ingelesa euskararekin nahasiz... Ingelesaren sonoritatearekin jairo zen rapa, eta euskara gaztelania baino hobeto moldatzen zaio. Nahasketa hori ezinbestekoa zela pentsatu nuen.

Ekoizpenetatik gauza zehatzak ere hartzen ditut: *sampler*-ak errepikatu, aurretik egindakoetatik kopiatu, euskal kulturarekin lotura egin, Laboaren kanta sartu... Trikitixa pila bat erabili. Gure soinuaren bereizgarri bihurtu baita.

*Zein berezitasun ematen dizkizu Arrano Pertxak?*

Euskaraz idazten ditudan letrak ez dira inoiz modu honetan landu. Badakit, beraz, nire jargoi propioa eraikitzen ari naizela. Euskarazko kaleko hizkuntza sortzeko, gaztelaniazko eta ingelesezko hitzak hartu eta transformatzen ditut. Lan hori egitea polita da oso. Honi esker, nire euskara maila asko hobetu da.

*Zure abestietan gai zehatzak lantzen ez badira ere, askotan aipatzen dira drogak. Nondik ateratzen duzu horren inguruan idazteko inspirazioa?*

Bizitzan izandako esperientzietatik, auzoan ikusitakotik, filmetatik, liburuetatik, rap abeslarietatik... Horrek raparen estetika definitzen du. Rap hutsa egin dutenen artean betidanik egon da horren inguruan egiteko ohitura. Arrano Pertxaren musikan ere egon

behar zen. Batetik, baserrien inguruko aipamena gehituta; bestetik, frontoien aldeko apustua eginez. Euskal Herrian beste modu batean antzematen baita ere *gangsterismoa*.

*Kontua da: nola ikusten duzue 'gangsterismoa'? Ikuspuntu komikotik?*

Hori gure lehen diskoan gertatu zen. Arrano Pertxaren aurkezpena zen eta dena maximizatu genuen. Argitaratutako azken diskoa lasaiagoa da, gogoetatsuagoa. Jarrera komikoari eusten diogu, baina eramangarriagoa da. Arrano Pertxak etapa hori gainditu du. Mundu ilun horren inguruan hitz egiten du oraindik, baina esperantzaren ikuspuntutik.

**“Euskal punka eta rocka entzun ditut. Ulertu dut hortxe daudela, nahiz eta nik beste bide desberdin bat ireki nahi dudan”**

*Fikziotik aritu bai, baina Euskal Herriaren inguruan kantatzeak musika politizatu dezake.*

Gure mezua arduragabea eta politizatu gabekoa izan da betidanik. Euskal punka eta rocka entzun ditut. Ulertu dut hortxe daudela, nahiz eta nik beste bide desberdin bat ireki nahi dudan. Arrano Pertxak kezka sozialak adierazten dituzten esaldiak ditu, nola ez, baina ez dira helburu. “*Fuck* aberria, gora euskara”, adibidez. Aberria ez zaigu inporta. Euskara zaindu, mantendu eta landu nahi dugu, besterik ez.

*Zein esango zenuke dela, beraz, eta orokorrean, zuen musikaren helburua?*

Gainerako guztiaren gaineratik, ondo pasatzea. Ez dugu inolako helburu ekonomikorik. Bizitza osoa daramagu Lengu Ilunak eta biok musika egiten, eta ez dugu gelditzeko asmorik. Gure bizimodua da, eta beti egongo gara hor, abestiak sortzen. Hori da gure filosofia.

*Azken diskoa duela bi urte argitaratu zenuten. 'Maitasunaren Bilduma'. Ba al daukazue buruan etorkizunerako proiekturik?*

Momentuz geldirik gaude, abesti batzuk amaitzear ditugu, baina ondo pasatzeko besterik ez. Arrano Pertxak kontzertuekin jarraituko du. Baliteke hurrengo urtean disko berria kaleratzea, baina oraingoz kontzertuak besterik ez ditu emango; *Maitasunaren Bilduma* ezagutarazteko asmoz. Agian, bidean ezustekoren bat agertuko da. Eta pozik.

## 1.2. Molde zaharretan ezin sartu

---

*Emakumeak espazio publikoetatik kanporatuak izan dira urteetan zehar. Bertsolaritzan eta rapean bidea irekitzen doaz gutxika-gutxika, beste askorekin batera, Ibarzabal eta Fani.*

Shakespeare antzerkigilearen nortasunaren misterioaren harira, gizona zela zalantzan jartzen du Virginia Woolfek *A Room of One's Own* liburuan. Woolfek berak, espazio publikoak gizonak okupatutakoak zirenez gero, Shakespeare gizon imajinatzen du. Nola izan zitekeen Shakespeare emakume azalpenik eman gabe etxea utzi baldin bazuen? Nola izan zitekeen Shakespeare emakume etxetik kanpoko kontuak gizonetzkoen zuzendurik bazeuden?

Ia ehun urte igaro dira liburua argitaratu zuenetik, baina gauzak oraindik ez dira hainbeste aldatu. Espazio publikoarekin harremana duten diziplinak gizonaren irudiarekin lotu egiten dira oraino. Bertsolaritza ez da salbuespen; hala azaldu du Nerea Ibarzabalek, 2021eko Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren irabazleak: "Euskaldun jator eta bertsolari oso loturik egon diren kontzeptuak dira. Eta niri, oraindik ere, esan ahala, 90eko hamarkadako gizon bat etortzen zait burura, nahigabe".

**“Bertsotan jarraitzen badut, bada feminismoa iritsi delako bertsoetara, edo bertsotan geundenok *feministatu* garelako da”**

*Nerea Ibarzabal - Bertsolaria*

Ibarzabalek hamasei urte daramatza bertsolaritzan. Juanjo Respaldizak eskaintzen zituen eskolatan hasi, eskolarteko txapelketetara aurkeztu eta Bertsolari Txapelketa Nagusian finalurrekoetara heldu zen 2017an. Bidea ez da erraza izan, baina Ibarzabali poza antzematen zaio noraino heldu den gogoratzean. Feminismoari atxikitzen dio, hein batean, arrakasta hori: “Bertsotan jarraitzen badut, bada feminismoa iritsi delako bertsoetara, edo bertsotan geundenok *feministatu* garelako da”.

Bertsoetara ez ezik, feminismoa euskal rapera heldu da ere. “Nik, nire ingurura begiratuta, Euskal Herrira begiratuta, antzematen dut emakumezko gehiago daudela”, esan du Fanik, Nizuri Tazuneri taldeko abeslariak 2009. urtean hasi zuen ibilbide profesionala rapean. Estatu Batuetako 90eko hamarkadako hip-hoparen jarraitzailea bazen ere, hurbilago sentitzen zituen rapa egiten zuten emakumeak: “Beti mutilez inguratuta egonda, eskertzen zen bestelako ereduak izatea”. Mala Rodriguez, kasu.

## **Ereduen garrantzia**

Ereduak. Horiak izan dira beti garrantzitsu. Gizakia imitazioaren bidez ikasten duen animalia-espezia izanda, emakumeek betidanik somatu dute eredu falta bizitzaren edozein esparrutan. Rapak argi erakusten du hori. “Gehienak gizonezkoak direnez, eta mundu mailan pribilegiadunak gizonak direnez, musika industrian ere eragiten du”, adierazi du Fanik. Gizonezko eredu gehiago, beraz, emakumezko abeslari gutxiago.

Horregatik da garrantzitsua, beste gauza askorekin batera noski, Fanik eta Ibarzabalek egiten duten lana; modu batean edo bestean, urteetan inposatu diren estereotipoengandik aldentzen direlako. Ibarzabalek estereotipoek ateak ixten dituztela uste du: “Oraindik bertsolariari 90eko hamarkadako gizon bati eskatzen zitzaiona exijitzen baldin badiogu, argi dago zenbat jende ateratzen den galtzen. Lazkao Txikiren eruditik gertuen dagoen baten bila ari zara, eta oso jende gutxi sartzen da hor”.

Sar dadin egin behar da borroka, ordea. Emakumeek gizonak bezainbeste merezi dute espazio publikoa, oholtzaren gainean libreki adierazteko eskubidea. Egun, eskubide hori dute, baina nahikoa eta berdintsua ote den haiei galdetu beharko litzaieke. Ibarzabalek erraz azaldu du: “Feminista izan dadin dena izan behar da feminista, ez da egon behar botere harremanik bertsolarien artean. Keinu txikiak daude: doinua aukeratzea, nor hasten den, nork daraman autoa, nork hitz egiten duen antolatzailearekin”.

Feminismoak mikromatxismo bezala definitzen ditu halako jarrerak, baina badaude sexismoz ziprztindurik dauden beste asko. Fanik bere larruan bizi izan ditu, haren taldekidea, Norzzone, gizona izanda. “Badakizu nolakoa den jendea”, dio, eta hamaika aldiz entzundako hitzak errepikatzen ditu: “Zer egiten du Norzzonek Fanirekin? Bakarko lana egingo balu, hobe egingo luke”. Argi utzi nahi izan du, ordea, biek maila berean jokatzeko dutela.

## **Haiengatik eta haientzako**

**“Emakumeari garrantzia ematen ez zitzaiolako dira beharrezkoak proiektuok, ikusgarritasuna emateko”**

*Fani - Rap abeslaria*

Bi diziplina desberdinetan antzerako sentimenduak izan daitezkeela bada jokabide sozialak errepikakorrek diren adierazgarri. Modu horretan, gizartearen zati isilaraziaren

erantzunak ere errepikakorrak dira: emakumeek espazio publikoak –kasu honetan, plaza eta musika industria– eskuratzearen alde egingo dute haiengatik eta haientzako sortutako espazioak hedatuz.

Aurten, bertsolaritzari dagokionez, *Señoras* ekitaldia eramango da aurrera. Emakumeek emakumeentzat sorturiko ekimena. Autonomia eta autogestioa baino ez dute eskatzen, gizonak pribilegioz izan dituztenak. Ibarzabalek argi utzi ditu bere nahiak: “Behintzat, guk diseinatzea bertsolaritza, eta ez bakarrik gonbidatuak izatea beste batzuen diseinura edo lekura”. Berdintasuna, finean.

“Emakumeari garrantzia ematen ez zitzaiolako dira beharrezkoak proiektuok, ikusgarritasuna emateko”, adierazi du Fanik. Bera ere emakumeei bidea irekitzeko lanean dabil: “Bilbon grabatu berri dut emakume artista batekin Bilboko Udalak eta beste plataforma batzuek bultzatutako proiektu bat”. Proiektuak estilo desberdinetako emakumeak hartzen ditu bere baitan. “Diskriminazio positiboa da”, esan du Fanik.

Diskriminazio *negatiboa* da azkentzeko zailena. Imitazioak ere alde txarrak ditu: espazio publikoak hartzen hasi diren emakumeek gizonak besterik ez dituzte izan erreferente. Zer esan nahi du horrek? Eduki artistikoetan, askotan, sexismo estrukturala nabaritzen dela oraindik. Fanik horrekin akabatzea hain erraza ez dela uste du: “Hori beste eztabaida bat da, feminismoaren barruan ere dagoen debate bat”.

### 1.3. Bertsolari Txapelketa Nagusiko irabazleak azken hamar edizioetan

---

<b>1982</b>	<b>Xabier Amuriza Sarrionandia</b> <i>"Lagunen eskea hori nik istea ez diat sentituko hik irabaztea"</i>
<b>1986</b>	<b>Sebastian Lizaso Iraola</b> <i>"Beste zati bat bihotz-bihotzez eskeintzen diot aitari, txalok parte hartu dezuten bertsolari guziari"</i>
<b>1989</b>	<b>Jon Lopategi Lauzirika</b> <i>"Nire hiletatara bazentozte laster, (bis) errezatu Beltzari hiru «Pater noster»"</i>
<b>1993</b>	<b>Andoni Egaña Makazaga</b> <i>"Nahiz kaja ez zen makala, hustu degu berehala; norbaitek arto-bixarrik badu, ekarri dezala (bis)"</i>
<b>1997</b>	<b>Andoni Egaña Makazaga</b> <i>"Burutik kenduz jarri nahi nuke zuen eskuen artean, lanean ari zeratelako Bertsozale Elkartearen (bis)"</i>
<b>2001</b>	<b>Andoni Egaña Makazaga</b> <i>"Iparraldean kutz ala pil da, beraz ausia akabo. Arratsaldean jardun nahi dugu hobeto ta argiago"</i>
<b>2005</b>	<b>Andoni Egaña Makazaga</b> <i>"Aurten aitaren baimenarekin amaz gogora beharko ama bakarra omen da baina gu zortzion amenizako (bis)"</i>
<b>2009</b>	<b>Maialen Lujanbio Zugasti</b> <i>"Eta hemen bildu dan indarraz grinaz eta poz taupodaz herri hau sortzen segi dezagun euskaratik ta euskaraz"</i>
<b>2013</b>	<b>Ametz Arzallus Antia</b> <i>"Nola artaldetik bereix joaten diren bildotsak har dezagun tarte bat ta hitz egin beza bihotzak! (bis)"</i>
<b>2017</b>	<b>Maialen Lujanbio Zugasti</b> <i>"Gure errimategiak uki gabe darrai beraz arratsaldean erkin eta jarrai!"</i>



*Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea*  
*Kazetaritza, 2021-2022 ikasturtea*

# **Memoria:**

## **Noranzko biko errimak**

Egilea: Iraia Vieira Gil  
Zuzendaria: Iñaki Lazkano Arrillaga

Leioa, 2022ko maiatzaren 17a, asteartea

## 2. Memoria

### 2.1. Laburpena

---

Euskal Herria bere osotasunean ordezkatzeko duen diziplinaren bat aukeratu beharko balitz, askori bertsolaritza etorriko litzaieke burura. Tradiziotik jasotako ahozko doktrina honek izugarritzko garrantzia izan du euskararen iraupenari dagokionez, bai eta Euskal Herriaren historiari dagokionez ere. Bertsolaritza euskaldunek artetzat hartzen duten diziplina izanik, baditu beste doktrina askok ez dituzten ezaugarriak. Ordea, badaude ahozko tradizioarekin zerikusia duten gainerako diziplinekin partekatzen dituen ezaugarriak ere. Hala da, behintzat, euskarazko raparen kasuan.

Jakina denez, rapa Ameriketako Estatu Batuetan sortutako musika estilo urbanoa da. Afro-amerikar sustraietatik jaioa, halaber mundu osoan zehar zabaldu den diziplina bihurtu da. Euskal Herrian, zehazki, 2000. urtean osatu ziren lehen rap taldeak. Nahiz eta euskal musikaren esparruan lekurik izango ez zuela pentsatzen zuten askok, talde horiek rapa egiteko bidea ireki zieten hurrengo belaunaldiei. Aldiz, eta 2000. urtetik 22 urte pasa baldin badira ere, euskarazko rapa garatzeke dago oraindik. Estilo, letra, abeslari, publiko desberdinak behar ditu.

Bertsolaritza ere bide berdina ari da jarraitzen: eboluzioa. Posiblea al du bertsolaritzak raparekin elkarbizitza egungo euskal kulturaren esparruan? Posiblea al du rapak bertsolaritzaren parekoa izatea? Zer daukate komunean eta zer ez? Hamaika zalantza gehiago burura etorrita ere, badago biak argi eta garbi lotzen dituen zerbait: euskararen alde egiten duten ahozko diziplinak dira.

### 2.2. Sarrera

---

Kazetaritzak interesatzen zaizkidan gaietan murgiltzeko aukera ematen didala uste izan dut beti. Bai irakurle bezala, bai idazle bezala. Maite ditudan gai horien artean, beti egon da bat gainerako guztien artean nabarmendu dena: musika. Txikitatik musikak izugarritzko garrantzia izan du nire etxean; sukaldean, egongelan, logelan... edonon entzun nitzakeen aitak jartzen zituen 80ko hamarkadako abestiak. Orduetik hona, gauzak ez dira aldatu eta, orain beste motatako musika gustuko baldin badut ere, edonora joaten naiz entzungailuak jarrita.

Behin unibertsitateko ikasketak hasita, hirugarren mailako *Erreporterismoa* irakasgaiari, Euskal Rock Erradikalaren inguruko erreportajea egiteko aukera izan nuen, orduan ikaskide nuen Iraitz Madariagarekin. Erreportaje hori egiteak euskal musikaren eremuan garrantzitsu izandako abeslariak elkarrizketatzeko aukera eman zidan -Roberto Moso, Kaki Arkarazo, Aitor Gorosabel...-, bai eta ezagutzen ez nituen beste asko ezagutzeko aukera ere. Tartean, Gotzon Retegi, Autobus Magikoa euskal taldeko abeslaria. Retegik euskarazko rapa egiten du ere -inprobisatua eta idatzia-, eta hain izan zen interesgarria hari egindako elkarrizketa non lagun egin ginen.

Euskarazko raparen inguruan gauza asko erakutsi zizkidan, eta musika estilo horrekiko nire interesa piztuz joan zen. Kuxkuxeatzen hasi eta datu deigarri batekin topo egin nuen: egun, euskarazko rap inprobisatua egiten duten rap abeslari asko bertsolariak edota bertsolari izandakoak dira. Ildo honetatik, otu zitzaidan, edonori gerta lekiokkeen bezala, galderarik oinarrizkoena: “Zer daukate komunean bertsolaritzak eta euskarazko rapak? Benetan al dira biak hain desberdinak?”. Momentu hartan, bertsolaritza eta raparen arteko paradoxa aztergai interesgarria izan zitekeela ohartu nintzen.

Gainera, bertsolari *freestyler*rez gain, ikertzeko interesgarria iruditu zitzaidan antitesia aurkitu nuen: tradizioa eta modernitatea ulertzeko era. Ordea, gaia aproposa iruditu arren, informazio nahikoa ez aurkitzearen beldur nintzen. Kezka hori alde batera geratu zen Jon Martin bertsolariari elkarrizketa egin ondoren. Martin lehen elkarrizketatua izan zen, eta harekin hitz egitea ezinbestekoa izan zen gai honi eusteko. Behin Martin elkarrizketatuta, bertsolaritzan edota rapean aditu zirenekin harremanetan jartzen hasi nintzen. Batzuen eta besteen istorioak entzun ondoren, diziplina bien artean espero baino desberdintasun eta berdintasun gehiago aurkitu nituen.

### **2.3. Helburua**

---

Bertsolaritza eta euskarazko raparen arteko berdintasun eta desberdintasun horiek azalaraztea izan da erreportaje honen helburu nagusia. Bertsolari eta rap abeslarien testigantzetatik abiatuta, diziplina bietako ezaugarriak aztertu eta konparatu dira ahalik eta zehatzenen. Bestetik, ahal izan den heinean, euskarazko rapari eman ez zaion ikusgarritasuna ematea izan da erreportajearen beste xedeetako bat. Izan ere, eta biak ahozko diziplinak izanik, bertsolaritzak pisu handiagoa izan du beti Euskal Herrian, tradizioarekiko duen harreman estua dela eta.

Euskarazko rapak bertsolaritzak edo bestelako musika estiloek izandako oihartzuna izan ez duenez, 2000. urtean sortutako taldeekin hitz egitea ezinbestekoa iruditu zait haiek hurbilez bizitako kontuak eta anekdotak ezagutarazteko. Ondorioz, Selektah Kolektiboa, Norte Apache eta Endika Lahaineren ikuspuntuak oinarritzat hartuz, euskal gizarte eta raparen arteko harremana nolakoa izan den, eta nolakoa den, kontatzeari ekin diot, aurreiritziek izan ditzaketen eraginak agerian utziz.

Amaitzeko, bertsolaritzan eta euskarazko rapean aritutako profesionalen ahotsak -Ekaitz Astizek, edota Markel Yollerrek, kasu- lana osatu dute. Izan ere, garrantzitsua iruditzen zitzaidan bertsoak eta rap abestietako lerroak nola eraikitzen diren jakinaraztea. Gainera, Andoni Egaña bertsolaria haren ikuspuntutik aritu da, eta bertsolaritzak duela 40 urtetik hona izandako bilakaera nolakoa izan den kontatu du. Haren ustez, euskarazko rapak oraindik ere bizi behar duen eboluzioa, hain zuzen.

## 2.4. Metodologia

---

### A. Informazio orokorreko bilaketa

Bertsolaritzaren inguruan oinarritzko ezagutza izanda ere, gaian sakontzeko informazio nahikorik ez nuela sentitzen nuen. Euskarazko raparekin, berdin. Ondorioz, diziplina biak lantzen zituzten lanak bilatzeari ekin nion. Bilaketa zaila izan zen, bertsolaritza eta rapa aldi berean ikertu dituen lan askorik ez baitago. Halako batean, eta kasualitatez, Xabier Silveirak eta Jon Ansak zuzendu eta ekoitzitako *MC TXIRRITA. Bertsoaren eta raparen maitasun istorioa* dokumentala topatu nuen. Hori izan zen, hain zuzen ere, Jon Martinen elkarrizketarekin batera, erreportajearen egitura zehazten hasteko abiapuntua.

Aldiz, Silveirak eta Ansak egindako dokumentala 2009. urtekoa zen eta, beraz, argitaletxe gehienetan deskatalogatua zegoen; hurbileko liburutegietan, ez zegoen. Geratzen zitzaidan azken aukera Xenpelar Dokumentazio Zentroaren atea jotzea zen. Esan eta egin. Xenpelar Dokumentazio Zentrora deitu eta dokumentala izan bazutela baieztatu zidaten. Ahal bezain laster bidali zidaten eskatutakoa, behin erreportajea amaituta haiei bidaltzearen truke. Bestalde, eta aste batzuk igaro ondoren, haiekin harremanetan jarri nintzen berriz ere, Bertsozale Elkartearen bitartez, bertsolaritza eta euskarazko raparen inguruko dokumentuak eskuratzearen. Nahiz eta bertsolaritzaren inguruko informazio asko bidali zidaten, euskarazko raparen inguruko informazioa eskasa zen.

Zentzu honetan, lagungarrien egin zitzaidan dokumentazio iturria Selektah Kolektiboko Aritz Sound Systemek sortu berri duen webgunea -<http://www.aritzsoundsystem.com/>- izan zen. Bertan, komunikabideetan euskarazko raparen inguruan argitaratutako informazio guztia aurkitu ahal izan nuen: diskoak, albisteak, elkarrizketak, antolatutako jarduerak... Finean, euskarazko raparen inguruan jakin beharreko guztia. Orduan bai, eta informazio hau Xenpelar Dokumentazio Zentroak bidalitakoarekin batera bildu ostean, erreportajea landu beharreko azpiatalak zehazteari ekin nion.

## **B. Bilaketa zehatza**

Iturri dokumentaletan sakondu ahala, diziplina bietan izen berdinak errepikatzen zihoazela ikusi nuen: Selektah Kolektiboa, Norte Apache, 121 Krew, Odei Barroso, Iñaki Viñaspre, Xabier Silveira, Jon Martin, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio... eta beste hainbeste. Jon Martini idatzi nion lehenengo, eta bera izan zen, aurretik aipatu bezala, elkarrizketatutako lehen pertsona. Bertsolarien artean, nire kabuz lortu ahal izan nuen iturri pertsonal bakarra izan zen. Gainerakoen telefonorik edota posta elektronikorik ezin izan nuen Internet bidez aurkitu.

Iturri pertsonalen bilaketa horretan, Bertsozale Elkartearen kontaktua aurkitu nuen eta laguntza eske idatzi nien. Elkarteko kideek berehala erantzun eta behar nituen kontaktuak zeintzuk ziren galdetu zidaten. Hurrengo bertsolari hauena eskatu nizkien: Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal, Andoni Egaña, Unai Muñoa, Ekaitz Astiz, Xabier Silveira eta Haritz Casabal. Batzuek erantzun ez bazuten ere, Ibarzabal, Egaña, Muñoa eta Astiz laguntzeko prest agertu ziren lehen momentutik. Ahalik eta laguntza gehien eskaintzearren, Bertsozale Elkartek Egoitz Zelaiaren kontaktua ere helarazi zidan. Bera ere elkarrizketa egiteko prest zegoen.

Lehenengo mailako iturriak lortzea posible izan nuen, beste gauza batzuen artean, musika munduan lan egiten duen jendea ezagutzen dudalako. Modu honetan, Norte Apacherekin, Endika Lahainerekin, Nizuri Tazunerirekin eta Markel Yollerrekin hitz egin ahal izan nuen. Hauek lehenengo momentutik laguntza emateko prest agertu ziren. Erreportajeari ikuspuntu desberdina eman ahal zioten pertsonekin ere harremanetan jarri nintzen nire kabuz; batez ere, rap munduan ibilitakoekin: Annekdotas, Arrano Pertxa, Chill Mafia, Glaukoma, Invert, La Basu, Nikotina eta Selektah Kolektiboa. Bertsolariekin gertatu bezala, kasu batzuetan, ez nuen erantzunik jaso. Beste batzuetan, ezinezkoa izan

zen elkarrizketa data zehaztea. Zorionez, Selektah Kolektiboarekin eta Arrano Pertxarekin hitz egin ahal izan nuen.

## 2.5. Erabilitako iturriak eta kontaktuak

---

Erreportajearen oinarria bertsolaritzan, rapean edota bi diziplinetan aritutakoen testigantzak dira. Elkarrizketatu gehienak laguntzeko prest agertu dira hasieratik, eta egindako galdera guztiak erantzun dituzte patxadaz. Haien adierazpenik gabe, bai eta Bertsozale Elkartearen laguntzarik gabe, ezinezkoa zatekeen erreportaje hau egitea.

### A. Iturri pertsonalak

Elkarrizketak aurrez aurre gauzatu dira mugikortasun, osasun eta ordutegi oztoporik egon ez denean. Kontrako kasuetan, telefonoz edo bideodeiez egin dira elkarrizketak, bakoitzaren beharretara egokituz.

- a. **Norte Apache.** Rayco MC-k eta Gaizka MC-k sortu zuten rap taldea. Bizkaiko Ezkerraldean jaioa, euskarazko rap musikaren alde egin zuen apustua. 2008. urtean, Gaizka MC-k taldea utzi eta Rayco MC-ri beste bi taldekide batu zitzaizkion: Aitor (DJ) eta Ibon (MC). 2009. urtean, Norte Apachek lehen diskoa kaleratu zuen: *Hesiaren beste aldean*. Sei urteren buruan, azkena: *Juanito Laguna*. Hala ere, euskarazko rap musikaren erreferentzia bihurtu da Euskal Herriko musikan.
- b. **Endika Lahaine.** 121 Krew talde barakaldarraren MC-a da. 2000. urtean, grafiti talde bezala hasi zen. Zenbait urte pasa ostean, musika munduan hasi zen. *Krew* kontzeptuak talde irekia esan nahi du; taldekideak, beraz, joan-etorrian dabilta etengabe. Batzuek, Endika Lahaineren antzera, bertan jarraitzen dute euskarazko rap musika egiten eta, beste batzuk, behin-behineko kideak besterik ez dira izan. 121 Krew-k 2005. urtean kaleratu zuen bere lehen diskoa, *La Mansión de los Mil Versos*, eta 2021. urtean azkena, *Xamanak*.
- c. **Aritz Sound System.** 2000. urtean sortutako Selektah Kolektiboa taldeko DJ ikonikoa. Izena Aritz Usandizaga badu ere, musika munduan Aritz Sound System bezala ezagutua da. Euskarazko rap arloan, adituen arabera, ekarpen gehien egin duenatariko DJa da, osasun arazoan ondorioz musika utzi behar izan duen arte. Selektah Kolektiboa Euskal Herrian eman zen euskarazko hip-hop-a egin zuen

lehen taldea izan zen. 2000. urtean *Selektah Kolektiboa* diskoa kaleratu zuten, eta 2002. urtean *Esperientzien etorbidetik* diskoa. 2005. urtean desegin zen taldea.

- d. Arrano Pertxa.** Arrano Pertxa eta Lengu Iluna hip-hop talde bilbotarraren kidea. Urko Gonzalez-ek eta David Rodriguezek sortu zuten taldea 2017. urtean. Proiektu honek Ameriketako Estatu Batuetan 90. hamarkadan zabaldu zen hip-hop mugimendua ekarri du Euskal Herrira. 2018. urtean, *Jaungoikoa, dirua eta erritmo zaharra* diskoa atera zuten; 2020. urtean, *Maitasunaren Bilduma* diskoa.
- e. Nizuri Tazuneri.** Fani eta Norzzone rap abeslariak sortutako euskarazko hip-hop taldea da Nizuri Tazuneri. 2014. urtean agertu zen talde hau euskal musikaren esparruan, iragana eta oraina rap erritmoetan uztartzeko helburuarekin. Orduetik hona, bost disko kaleratu dituzte: *Nizuri Tazuneri* (2014), *Musika ala hil* (2017), *Zazpi* (2019), *Anubis* (2021) eta *Edonola* (2021). Nondik dator taldearen izenaren hitz-joko hori? “El rap en euskera suena a chino” esalditik.
- f. Nerea Ibarzabal.** Bertsolaria eta, ikasketaz, kazetaria. Hamabi urterekin hasi zen bertsolaritzan, eta 2012. urtean kantatu zuen lehen aldiz Bizkaiko Txapelketan, eskolarteko txapelketetan eta gazte sariketetan parte hartu ondoren. 2014. urtean, Lea-Artibaiko txapelduna izan zen, 2016. eta 2018. urteetan Bizkaiko Txapelketaren finalista, eta 2021. urtean, Bizkaiko txapelduna.
- g. Andoni Egaña.** Bertsolari, euskal filologo eta idazlea. 40 urte daramatza bertsolaritzan eta, denbora honetan, lautan irabazi du Euskal Herriko Txapelketa Nagusia: 1993, 1997, 2003 eta 2005. Horrez gain, parte hartutako txapelketa guztietan finalista izan da. Izan ere, bere bizitza osoa sormen lanetara eta bertsoaren ikerketara bideratua egon da. Seguraski, egun bertsolaritzaren ordezkari nagusia da Egaña.
- h. Jon Martin.** Bertsolari, idazle, musikari eta kazetaria. Publizitate eta Harreman Publikoetan graduatua, eskolak ematen ditu Euskal Herriko Unibertsitateak eskaintzen duen Haur Hezkuntzako graduan. 1994. urtean egin zuen bere lehenengo plaza bertsolari bezala, Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan. 2003. urtean, Gipuzkoako Txapelketan, bigarren postuan geratu zen; 2007. urtean, txapelketa berdinean, hirugarren postuan. 2005, 2009, 2013 eta 2017 urteetan, Euskal Herriko Txapelketan, finalerdietara iritsi zen.

- i. **Egoitz Zelaia.** Bertsolaria, bertso-irakaslea eta gai-jartzailea. Euskal Filologia ikasi zuen unibertsitatean eta kazetaritza lanetan aritu izan da. Oinarrizko ikasketak atzerrian egin zituen, Mexikon. Gaztelaniaz, beraz. Euskararen presentzia, baina, handia izan da bere etxean, osaba eta aita bertsolariak izanik. Zelaiak bere lehen plaza 2000. urtean egin zuen. Hamaika Bertute kolektiboan hartzen du parte, beste 34 bertsolarirekin batera.
- j. **Markel Yoller.** Bertsolaria. Zalduondoko bertso eskolan hasi zen 2009an eta, urtebete geroago, Arabako Eskolartekoan kantatu zuen lehenengo aldiz. Oraindik gaztea baldin bada ere -23 urte ditu-, Odei Barrosorekin aritu da rap saioetan, bai eta bertsolaritza egiteaz gain euskarazko inprobisazioa egiten dutenekin ere. In Da House festibala da rap saio horien adibide.
- k. **Ekaitz Astiz.** Bertsolaria eta rap abeslaria. Ingeniari informatikoa da eta masterra du segurtasun informatikoan. Goienetxe Anaiak rap taldeko kidea da. Goienetxe Anaiak euskarazko hip-hop egiten duen talde nafarra da. 2009. urtean sortu zen, eta 2010. urtean lehen diskoa atera zuen: *Heriotz Artio*. 2014an atera zuten azkena: *Lekuz Estu*. Astizek euskarazko rap inprobisazioan esperientzia ere badu.

## B. Iturri dokumentalak

Erreportajearen oinarri nagusia bertsolari eta rap abeslariari egindako elkarrizketak baldin badira ere, ezinbestekoa iruditu zait iturri dokumental jakin batzuetara jotzea informazioa osatzeko helburuarekin. Iturri dokumental hauetako batzuk Xenpelar Dokumentazio Zentroak (XDZk) eskuratutakoak dira, zeina laguntza emateko prest agertu den hasieratik.

### a. Liburu eta artikulak

Agirre, Antxoka (2021). *Bertsolaritzaren historia soziala. Oihartzuna, eragiletza eta gakoak (1823-2018)*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Artola, Leire (2022ko apirilaren 5a). “Lehen bertso eskola: Euskara herriari eman zioten”. *Argia*. Eskuragarri hemen: <https://www.argia.eus/albistea/lehen-bertso-eskola-herriari-eman-zioten-euskara> [Kontsulta-eguna: 2022/04/21]

Barroso, Odei; Axpe, Eneko (2020ko abenduaren 23a). “Euskarazko hip-hop: 20 urte, 20 diskotan”. *Berria*. Eskuragarri hemen: [Euskarazko hip-hop: 20 urte, 20 diskotan | Kultura | Berria](#) [Kontsulta-eguna: 2022/2/10].



“Bertsolaritza” (2008ko abenduaren 16a). *Bitakora*. Eskuragarri hemen: <https://blogak.eus/antropologia/bertsolaritza> [Kontsulta-eguna: 2022/04/28].

Ibargutxi, Felix (2013ko abuztuaren 13a). “Con la rima a otra parte”. *El Correo*. Eskuragarri hemen: <https://www.elcorreo.com/vizcaya/20130813/mas-actualidad/cultura/rima-otra-parte-201308121255.html> [Kontsulta-eguna: 2022/2/10].

López, Alberto (2017ko abuztuaren 12a). “El hip-hop empezó tras una fiesta en Nueva York”. *El País*. Eskuragarri hemen: [https://elpais.com/cultura/2017/08/11/actualidad/1502442803\\_063516.html](https://elpais.com/cultura/2017/08/11/actualidad/1502442803_063516.html)

Matxain, Kepa (2019ko irailaren 29a). “Fuck aberria, gora euskara”. *Argia*. Eskuragarri hemen: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2659/arrano-pertxa-eta-lengu-iluna-hip-hoparekin-tirokatuz> [Kontsulta-eguna: 2022/2/18].

Nizuri Tazuneri. *Taupaka*. Eskuragarri hemen: <https://taupaka.eus/nizuri-tazuneri/> [Kontsulta-eguna: 2022/3/5].

Woolf, Virginia (2016). *Una habitación propia*. Bartzelona: Austral.

## **b. Web orrialdeak**

Aritz Sound System: <http://www.aritzsoundsystem.com/>

Bertsozale Elkartea: <https://www.bertsozale.eus/es>

Xenpelar Dokumentazio Elkartea: <https://bdb.bertsozale.eus/>

## **c. Dokumentalak**

Silveira, Xabier (Ekoizlea) eta Ansa, Jon (Zuzendaria) (2009). *MC TXIRRITA. Bertsoaren eta raparen maitasun istorioa* [Dokumentala]. Lanku.

## **d. Youtubeko bideoak**

Argia [ARGIA aldizkaria] (2010). *Euskarazko rapa*. [Bideoa]. [Euskarazko rapa - YouTube](#) [Kontsulta-eguna: 2022/2/12].

## 2.6. Edukien antolakuntza

---

Erreportajeari forma ematea bereziki zaila izan zen iturri pertsonalei egindako elkarrizketen luzeraren ondorioz. Hain zuzen ere, elkarrizketetatik egin beharreko aukeraketa izan zen niretzat zatirik korapilatsuena. Iturri guztiek erreportajerako baliagarriak ziren hamaika bizipen zituzten, eta, nola ez, izugarrizko ezagutza teknikoa. Azkenean, eta erreportajearen egitura zehazteko, osotuen zeuden elkarrizketetan ezarri nuen erreportajearen egituraren oinarria: batetik, eskainitako informazio guztiagatik, Jon Martin eta bestetik, bertsolaritzaren munduan izandako esperientziagatik, Andoni Egaña. Elkarrizketa hauetatik nahi eta nahi ez erreportajearen lekua izan behar zuten atalak aukeratu nituen, hala nola, diziplina bietan jorratzen diren gaiak, lantzen diren errima sistemak, audientziaren arteko desberdintasunak, bati zein besteari esleitzen zaizkien estereotipoak...

Hala eta guztiz ere, atal horien inguruan hitz egin aurretik, hasiera zehaztu beharra nuen. Egia esan, erreportajearekin hasi nintzenetik argi neukan bertsolaritza eta raparen historiarekin zerikusia zuen sarrera idatzi nahi nuela, baina ez nekien nola. Izan ere, ez nuen irakurlea aspertu nahi historiarekin zerikusia zuen orrialde oso bat idazten, irakurtzeko arina eta erakargarria egin nahi nuen. Hala, hip-hoparen inguruan sorrera nolakoa izan zen kontatzen zuen sarrera literarioago bat idaztea otu zitzaidan. Sarrera honekin hasteak, gainera, euskarazko rapean sakontzeko bidea irekitzen zidan, bai eta bertsolaritzaren sorrerarekin lotura egitekoa ere.

Erreportajearen gorputz nagusian, aipatu bezala, raparen eta bertsolaritzaren artean dauden berdintasun eta desberdintasunak aipatzen dira, baita elkarrizketatuek bizitako esperientziak ere. Ordea, garrantzia berezia eman nahi nieke, zehazki, erreportajearen gorputz nagusitik aparte doazen bi zatidurari: bi diziplinetan emakumearen egoera nolakoa den deskribatzen duena eta rapa egiteko modu ezberdina dakarrena. Hasieratik izan nuen argi emakumeak lekua izan behar zuela erreportaje honetan, baina emakumeen testigantzak aurkitzea zaila izan zen. Beraz, testu nagusitik bereiztea erabaki nuen.

Bigarren zatidurarekin, antzeko zerbait gertatu zitzaidan. Erreportajearekin hasi eta konturatu nintzen aurkitutako rap abeslari gehienak 2000. urtekoak zirela. Aldiz, nik egun rapa egiteko modua ere erakutsi nahi nuen. Beraz, azpigai horri zatidura moduan ikusgarritasuna ematea zela aipatzen iruditu zitzaidan. Gainera, Arrano Pertxaren

kasua ezagutu eta desberdina denaren inguruan hitz egiteko aitzakia polita aurkitu nuen. Zatidura honek, emakumeenarekin batera, erreportajea borobiltzeko aukera eman dit.

## **2.7. Erreportajearen eta memoriaren idazketa**

---

Erreportajea gauzatzeko informazioa gutxika-gutxika jasotzen joan nintzen. Behin dokumentazio lana ia bukatuta neukala ikusi nuenean, elkarrizketak egiteari ekin nion. Jon Martini urtarrilean elkarrizketa egin banion ere, gainerako guztiak martxoaren eta apirilaren artean egin nituen. Elkarrizketak egin ahala, hauek transkribatuz joan nintzen, informazioa egituratzeko lana erraztu asmoz.

Egindako hamaika elkarrizketetatik, bost aurrez aurre egin nituen, hitzorduak eta elkarrizketak egiteko lekuak adostea erraza izan baitzen. Horrez gain, beste lau bideodeiez gauzatu ziren, elkarrengandik urrun bizi ginelako, nagusiki. Azkeneko biei dagokienez, bata telefonoz egin nuen eta bestea, elkarrizketatuaren osasun arazoak zirela medio, idatziz. Hau da, galderak e-posta bitartez bidali eta erantzunak bide beretik jaso nituen.

Idazteko lan prozesuari helduta, egitura koherenterik ez aurkitzea zen, agian, beldur gehien ematen zidana. Iturri pertsonalek emandako informazioarekin zintzotasunez jokatzuz, baina, edukia ahalik eta zehatzenen adierazten saiatu naiz. Izan ere, gainerako guztiaren gainetik, erreportaje informatiboa ontzea izan da nire helburua.

## **2.8. Ondorioak**

---

Kazetaritza ikasteak eman dizkidan esperientzien artean, Euskal Herrian paper garrantzitsua izan duten eta oraindik ere baduten, pertsonekin hitz egitea izan da onenarikoa. Gradu Amaierako Lan hau egin bitartean, izugarri gozatu dut bestela inoiz ezagutuko ez nituen artistak elkarrizketatzen. Edo, behintzat, ikasle bezala pentsaezin egiten zitzaizkidan artistak elkarrizketatzen. Ondorioz, eskerrak besterik ezin dizkiot eman behar erreportaje honetan parte hartu duten pertsona guztiei.

Bertsolaritza eta rapa jorratzen dituen lan batean murgiltzeak tradizioaren inguruan izugarri erakutsi dit, bai eta egungo euskal musika panoramaren inguruan ere. Aurretik kazetari izan nahi banuen, orain nire nahia askoz ere indartsuagoa bihurtu da. Lau urte hauetan azaldu didaten kontzeptua guztiz ulertzea lortu dut: kazetari sena.

Eskerrak eman nahi dizkiet Jon Martin, Norte Apache, 121 Krew, Selektah Kolektiboa, Egoitz Zelaia, Markel Yoller, Ekaitz Astiz, Andoni Egaña, Arrano Pertxa, Nizuri Tazuneri eta Nerea Ibarzabali. Erreportaje hau zuek entzun gabe idaztea ezinezkoa litzateke. Halaber, Bertsozale Elkartea eta Xenpelar Dokumentazio Zentroa eskertu nahi ditut. Ikerketa lanak errazteagatik, eta elkar ezagutu gabe eskainitako laguntzagatik.